

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak
euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al
estudio de la lengua vasca

Erdaretarako literatur
itzulpena: zeharkako eta zu-
zeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa

ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko muga lausoa

Extratranslations from Basque literature: the blurred line between direct and indirect translation

ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

elizabete.manterola@ehu.eus

JASOA: 2019/06/10 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/07/26 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/12/14

Honako ikerlan hau TRALIMA/ITZULIK ikerketa-taldearen jardueren barruan kokatzen da. UPV/EHUK babestutako taldea da TRALIMA/ITZULIK (GIU16/48) eta Eusko Jaurlaritzak ezagutua du talde kontsolidatu gisa (IT1209-19).

LABURPENA

Euskaratik erdaretarako itzulpenetan gaztelania dugu xede-hizkuntza nagusi, eta euskal literaturak gaztelaniazko literatur sistemarekiko duen mendekotasun hori gainerako erdaretarako itzulpenean ere islatzen da. Uste orokortua da kanporako norabidean zeharkako itzulpena dela nagusi, eta kopurutan hala badirudi ere, gero eta gehiago dira euskaratik hainbat erdaretarako itzulpenak zuzenean egiteko gai diren profesionalak. Euskaratik gaztelaniarako norabidean sarritan autoitzulpenak egiten direnez, ikusiko dugu zein testu erabiltzen den iturri gisa. Hala, aurrez gaztelaniara (auto)itzuliak izan diren hirugarren hizkuntzetarako itzulpenak izango ditugu aztergai. Bertsio bakoitzari ematen zaion garrantziari erreparatuko diogu eta testu bata ala bestea iturri gisa erabiltzeko hautuaren atzean dauden arrazoiak aztertuko ditugu.

ABSTRACT

The dependence of Basque literature on Spanish literature is reflected in the number of translations into Spanish and in extratranslations into other languages. There is a widespread perception that indirect translation is the norm in the outward directionality, although the number of professionals able to translate directly from Basque is increasingly growing. As authors often translate their own work into Spanish, translations into third languages already (self-)translated into Spanish will be observed in this study to see what text is used as a source and to analyze the reasons behind the use of one text or the other as a source.

Gako-hitzak: erdaretarako itzulpena; zeharkako itzulpena; zuzeneko itzulpena; autoitzulpena.

Keywords: extratranslation; indirect translation; direct translation; self-translation.

1. Sarrera

Azken urteetan garrantzi handia eman zaio euskal kultura eta literatura kanpoan ezagutarazteari. Itzulpenak ahalbidetzen du zabalkundea, eta ikertzaileen eta itzultzaileen artean uste orokortua da zeharkako itzulpenak direla nagusi euskaratik egiten den esportazioan. Alabaina, azken urteetan saiakera ugari egin da zuzeneko itzulpenak bultzatzeko, ulertzen baita bitartekaritarik gabeko bidea egokiagoa dela jatorrizkoa xede-kulturan hedatzeko. Gero eta gehiago dira euskaratik hainbat xede-hizkuntzatarara zuzenean itzulitzeko gai diren itzultzaileak; horri esker, zuzeneko itzulpen-kopurua ere gorantz doa.

Euskaratik erdaretarako literatur itzulpena indarra hartzen ari denez azken boladan, garrantzitsua da zer eta zenbat itzuli den ezagutzeaz gain, nola itzuli den jakitea. Ekarpene honen bitartez kanporako bide horretan egin diren saiakerak aztertuko ditugu, zuzeneko zein zeharkako itzulpenaren arteko aldea zer-nolakoa den ikusteko lehenik, eta bien arteko muga gertutik ezagutzeko bigarrenik. Zeharkako itzulpenak bitarteko hizkuntzarekiko mendekotasuna ageriko egiten badu, ikusiko dugu zuzeneko itzulpenaren kasuan ezin dela guztiz baieztatu mendekotasunik ez dagoenik. Sistema ez oso eta mendeko izatearen ondorioz, zuzeneko harremanak ez dira sarritan bi kulturatarara mugatzen, baizik eta zubi-lanak egiten dituen hirugarren baten presentzia nolabaitekoa ere izaten da. Hori dela eta, zuzeneko eta zeharkako itzulpenen arteko mugei buruzko hausnarketa egingo dugu.

Euskaratik erdaretarako bidean aukera handia dago testua dagoeneko gaztelaniara itzulia egoteko, autoitzulpen edo bestek eginiko itzulpen gisa. Interesgarria da ikustea gainerako erdaretarako bidean zein hartzen ote den iturri: jatorrizko euskarazko testua ala gaztelaniaratutako testua. Ikusiko dugu ea berdin jokutzen den autoitzuliriko edo beste itzultzaile batek itzuliriko liburuen kasuan.

Zuzeneko eta zeharkako itzulpenen arteko aldeari buruzko hausnarketa egiteko, hainbat idazleren, autoitzultzailearen eta itzultzailearen esperientziak izango ditugu aztergai. Helburu izango dugu ezagutzea zein faktorek eraginda hautatzen den iturri-testua.

2. Euskaratiko itzulpena

Gero eta gehiago dira euskaratik erdaretara itzultzen diren literatur lanak; hala erakusten dute NorDaNor datu-baseak (EIZIE, d. g. a) eta ELI katalogoak (Manterola, d. g.), eta datuak xehe-xehe begiratuta ikusiko dugu 2000. urtetik aurrera kopuruak nabarmen egin duela gora (Manterola, 2014, 90. or.). Euskal kultura Euskal Herritik kanpo eza-

gutxera ematea estrategikoa da Eusko Jaurlaritzarentzat; Etxepare Euskal Institutuaren sorrera (2007) dugu horren erakusle. Literatura sustatzea zeregin nagusienetako bat du, eta nabarmentzekoak dira bai itzulpenak egiteko, bai lanen sustapenera bideratutako laguntzak. Itzulpena beharrezkoa da kapitalizazioa bermatzeko eta munduan kokatzeko (Olaziregi, 2019).

Euskararen izaera gutxitu eta egoera diglosikoak nahitaez baldintzatzen du literatur trukea eta kanporako norabidean ohikoak bihurtzen dira beste hainbat truketan bazterrekoak diren hainbat fenomeno, izan autoreak bere lanaren itzulpenean parte hartzea, izan erdaretarako itzulpena bitarteko hizkuntza bateko bertsiotik egin beharra. Autoitzulpena da gaztelaniaritze-bide ohikoena (% 48,89 kasutan), eta segidan datoz bestek itzuliriko liburuak (% 34,29) eta autorearen eta itzultzailearen arteko kolaborazioak (% 4,58) (Manterola, 2018, 7-8. or.). Arrulak (2018, 135-136. or.) erakutsi moduan, euskaratik eginiko autoitzulpen gehien-gehienek (% 86,4) gaztelania dute xede, gainerako % 11,8k frantsesa, eta bada beste hizkuntzetara eginikorik ere (% 1,8).

Euskal lanen esportazioan gaztelaniaren itzala nabari daiteke, batzuetan modu argian, beste batzuetan ez hain agerikoan. Gaztelania dugu euskal lanen xede-hizkuntza nagusia, alde handiz, itzuliriko lanen % 46,68 osatzen baitute (Manterola, 2014, 104. or.). Hortaz, gainerako erdaretara itzultzen diren lan asko jadanik gaztelaniara itzulirik egon ohi da. Hirugarren hizkuntzetarako itzulpenek hainbatetan gaztelaniazko bertsioa hartzen dute abiapuntu euskarazkoaren ordez¹, nahiz eta zaila izan jakiten kopuru zehatzetan zenbat diren zeharka itzuliriko lanak, paratestuetan ez baita informazio xeherik ematen kasu askotan (Manterola, 2014, 111. or.).

Manipulazioaren eskolak defendatzen duenez, itzulpenean beti egongo da esku-hartzea edo manipulazioa. Bitartekaritza izanik zeharkako itzulpenen ezaugarri nagusi, esku-hartzea handiagoa izango da urrats bat gehiago ematen bada. Euskararen eta gaztelaniaren arteko harremanean, bi hizkuntzen arteko aldeak nabarmenak dira (ez egitura aldetik bakarrik, baita estatusari dagokionez ere), eta manipulaziorako aukera handiagoa izan daiteke. «Hortaz, bi hizkuntzen arteko mailaketak eta botere harremanak zerikusi handia izango dute itzulpenaren izaeran» (Manterola, 2014, 74. or.).

Zeharkako itzulpena nahiko fenomeno arrunta izan da literatura unibertsalean. Garaian garai eta tokian toki sona ezberdina izan du: Erdi Aroan, adibidez, testuen egiletza ez zen hain garrantzitsua; egun, ordea, zeharkako itzulpenak saihesteko joera zabaldu da (Manterola, 2014, 76-77. or.). Hizkuntzaka, garaika zein generoka banatu beharreko fenomeno da (Manterola, 2014, 78. or.), eta bakoitzean onarpen-maila ezberdina izango du.

Literatur sistemaren txikitasunari loturiko motibazioek bultzatu izan dituzte sarritan zeharkako itzulpenak. Cid Abasolok (2015, 188. or.) hainbat arrazoi aipatzen ditu euskal autoreek zeharkako itzulpena nahiago izateko:

¹ Zeharkako itzulpenak egiteko gaztelania dugu zubi-hizkuntza nagusi, baina historian zehar baliatu izan da, oso modu isolatuan, frantsesa edo ingelesa ere. Ik., xehetasun gehiagorako, NorDaNor datu-basea (EIZIE, d. g. a) edo ELI katalogoa (Manterola, d. g.).

- hay más traductores desde el español que desde el vasco a cualquier lengua. Hay, por tanto, más donde elegir;
- hay traductores a más lenguas desde el español que desde el vasco;
- existe la opinión de que resulta más fácil traducir a una lengua indoeuropea desde otra lengua indoeuropea que desde una lengua no indoeuropea (por ejemplo, el vasco);
- por lo general, los textos literarios en español presentan una mayor complejidad sintáctica que en vascuence, y por ello, una traducción literal de este a aquel podría tener una recepción poco favorable. Para evitar que eso también ocurra en la traducción a otros idiomas, una solución puede ser recurrir como texto de partida a la traducción al español. Si [...] la traducción es, al menos parcialmente, obra del propio autor, esta decisión resulta más fácil de tomar (Cid Abasolo, 2015, 188. or.).

Ikus daitekeenez, hiztun-kopuru mugatuak zail egiten du euskaratik lan egiteko gai diren itzultzaileak topatzea, eta inguruko hizkuntzekiko distantzia linguistikoa ere muga izan liteke hiztun berriak lortzeko. Finean, hizkuntzaren egoera diglosikoak, inguruko hizkuntza hegemonikoekiko morrontzak, zeharkako itzulpena ohiko izatea bultzatzen du.

Zeharkako itzulpenaren fenomenoak izan liteke literatura baten ahuleziaren erakusle, baina aldi berean izan liteke literatura hori kanporatzeko bide bakar ere. Testuinguruari erreparatzea ezinbestekoa da, ikustea zein egoeratan, zein baliabiderek eta zer helbururekin egiten den itzulpen bat, eta zer garrantzi aitortzen ote zaion itzulpenari eta itzultzeko bideari. Zuzeneko itzulpenaren aldeko joera handitzen ari da euskal literaturan egun. Itzulpena urrats bakarrean egitea bitan egitea baino hobea den ustea dago oinarrian: bitartekaritarik gabeko harreman zuzenak ahalbidetzen ditu, eta horrekin batera estatusa eta ikusgarritasuna handitu. Hobespen horren pare bat adibide aipatuko ditugu jarraian. Euskararako itzulpena sustatzen duen *Literatura Unibertsala* bildumarako lehiaketa-deialdiak, esaterako, zehazten du itzulpena jatorrizko hizkuntzatik egiten ez bada, gutxienez bi sorburu-hizkuntza erabili beharko direla, baina, nolana ere, jatorrizko hizkuntzatik itzultzea hobetsiko dela (EIZIE, 2019). Euskaratik erdaretarako norabidean, berriz, Etxepare Euskal Institutuak kudeatzen dituen literatura-itzulpenetarako diru-laguntzen eta Etxepare-Laboral Kutxa itzulpen-sarien deialdietan lanak balioztatzeko irizpideen artean % 10eko puntuazioa lortuko du itzulpena zuzenean jatorrizkotik abiatuta egiten duen hautagaiak (EHAA, 2019; Etxepare Euskal Institutua, 2019). Kasu horiek erakusten dute zuzeneko itzulpena bultzatu nahi dutela literatur itzulpena sustatzen duten erakundeek.

Bi ekimen nabarmentzekoak dira zuzeneko itzulpena sustatzeko eman diren urratsen artean. Lehenik eta behin, *Idazlea itzultzaileen lantegian*, 2004-2016 bitartean EIZIEk urtero antolatu zuen itzulpen-tailerra hain zuzen ere. Idazle bat eta itzultzaile talde bat gonbidatu ditu edizio bakoitzean elkarteak, itzultzaile bakoitzak bere xede-hizkuntzara egin dezan idazleak euskaraz idatziriko testu-lagin baten itzulpena. Bizpahiru egunez guztiak elkarrekin bildu, eta testuari buruzko zalantzak argituz itzulpenak eskuz esku lantzea izan da tailerraren muina. Hizkuntza ugaritako hainbat itzultzailek hartu du parte edizioz edizio; hala, elkarteak trebakuntzan jarri du azpimarra nagusia. Izan ere, euskaratik erdaretarako itzulpena berariaz lantzeko formakuntza arauturik ez dago egun.

Bestalde, *Itzultzaile berriak* izeneko proiektu berritzailea jarri zen abian 2016an, DSS2016 Fundazioak eta Etxepare Euskal Institutuak sustatuta eta EIZIEk lagunduta. Euskal literatura atzerrian ezagutarazteko sorturiko egitasmo honek nazioarteko literatur itzultzaileek euskara ikastea eta lantzea zuen helburu, eta eskarmentu handiko zortzi literatur itzultzailek hartu zuten parte. Euskarazko oinarrizko ezagutza zuten lau itzultzailek hilabeteko egonaldia egin zuten Euskal Herrian, ordura arte zuten hizkuntza-gaitasuna zabaltzeko; euskararik ez zekiten gainerako lau itzultzaileek sei hilabete igaro zituzten barnetegi batean, euskara hutsetik ikasi eta euskal kultura ezagutzeko. Egonaldi horien bitartez, itzulpenetan euskara zubi- nahiz sorburu-hizkuntza gisara erabiltzeko nahikoa gaitasun lortzea zen helburu. Egitasmoaren amaieran itzulpen-lantegi batean hartu zuten parte zortzi itzultzaileek². Horrez gain, sei hilabeteko egonaldia egin zuten lau itzultzaileek liburu bana itzultzeko konpromisoa zuten³.

Ekimen horiez gain, badira inizatiba pribatuz sorturiko hainbat eta hainbat itzulpen zuzen ere, konparazio batera, Ramon Saizarbitoriaren *Martutene*, Aritz Brantonek ingelesera itzulia 2016an, edo Kirmen Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua*, katalanera, galizierara eta frantsesera euskaratik zuzenean itzulia. Horiez gain, badira euskal lanak xede-kulturetan modu iraunkorragoan ezagutarazteko asmoa duten ekimenak ere. Nabarmentzekoak dira Alemaniako Pahl-Rugenstein argitaletxeak abiatutako *Zubiak* saila, 2012an amaitu zena, eta Renoko Center for Basque Studiesek sorturiko *Basque Literature Series* bilduma. Herbeheretan sorturiko Zirimiri press argitaletxeak ere itzuli ditu hainbat liburu euskaratik nederlandera⁴, eta Erromako Associazione Culturale Euskara (ACE) elkarteak ere argitaratu ditu online italierarako hainbat itzulpen⁵.

3. Zuzeneko eta zeharkako itzulpenen arteko muga lausoa

Hirugarren hizkuntzetarako itzulpenak aztertu aurretik, gaztelaniarako itzulpenari erreparatzea komeni da lehenik. Aurreko atalean aipatu dugun moduan, gaztelaniarako itzulpenak izan daitezke autoreek eginak ala beste itzultzaile batek eginak; izan litezke, halaber, idazlearen eta itzultzailearen arteko elkarlanaren emaitza ere. Autoitzulpena eta itzulpen alografoa, baina, ez dira nahitaez kontrario edo baztertzaila, eta gertuko izan daitezke eremu elebidunetan sortzen diren supraautoitzulpenetan:

El hecho de que el autor sea traducido por otros no quiere decir que quede completamente fuera del proceso traductor, ya que siempre puede dialogar y debatir con el traductor sobre el producto final, un producto que se produce en una de sus lenguas

² Egitasmoari zein argitaraturiko liburuei buruzko informazio zabalagoa Itzultzaile berriak egitasmoaren webgunean aurki daiteke (EIZIE, d. g. b).

³ Itzulpen horietako batzuk dagoeneko argitaratu dira: Maria Pachkovak Arantxa Urretabizkaia *Koaderno gorria* bulgariarako itzuli zuen (Urretabizkaia, 2018a) eta Barbara Pregeljek lan hori bera (Urretabizkaia, 2018b) eta Bernardo Atxagaren *Xola eta Ameriketako izeba* (Atxaga, 2017) eslovenieraz argitaratu ditu.

⁴ Webgunean ikus daiteke katalogoa (Zirimiri press, d. g.).

⁵ Ik. zerrenda osatua haien webgunean (ACE, d. g.).

principales. De este modo en ese intercambio entre autor y traductor se podría llegar a un punto intermedio en el que ambos son responsables del texto final (Manterola, 2018, 112. or.).

Euskaratik gaztelaniara egiten diren itzulpen alografoak berrikusteko gai dira idazleak testua argitaratu aurretik. Hortaz, gaztelaniarako itzulpen alografoak autoreek onartuak edo autorizatuak izan daitezke, eta itzulpen alografoaz haratago joan.

Dagoeneko gaztelaniara itzuliriko lanak hirugarren hizkuntzetara itzultzen direnean bi aukera izan ohi dira. Lehenengoa, xede-hizkuntzako itzultzaileak euskararik ez jakitea: kasu horietan aukera bakarra izango da, hots, zeharkako itzulpena egitea bitarteko hizkuntza batetik, eskuarki, gaztelaniatik. Bigarren aukera da euskara dakien itzultzaile batek izatea itzulpena egiteko ardura. Halakoetan itzultzaileek bi testu dituzte eskura (euskarazko jatorrizkoa eta autoreak sorturiko itzulpena), eta erabaki beharko dute zein hartu itzulpenerako abiapuntu. Oro har, euskara dakiten hirugarren hizkuntzetarako itzultzaileek gaztelania ere ondo asko menderatzen dute, sarritan, gainera, gaztelaniaren arrastotik ikasi dute euskara.

Iturri-testuaren hautaketak garrantzia hartuko du, erdaretarako abiapuntu hartzen dena besteari gainjarriko baitzaio kanonizazioari dagokionez. Hainbat faktorek baldintza dezakete iturri-testuaren hautua. Batetik, autoitzulpenaren eta jatorrizko testuaren artean egon daitekezkeen ezberdintasunak izan litezke baten ala bestearen alde egiteko arrazoi. Gaztelaniarako autore-itzultzaileek eginiko aldaketak izan litezke linguistikoak edo kulturalak, guztiak ere xede-irakurlearen beharretara egokituak. Ezberdintasunak nabariak badira, aldaketa horien atzean dauden arrazoiak identifikatu eta xede-irakurlearentzat zer den komenigarriagoa ikusi beharko da. Bestetik, jatorrizko testuaren eta autoitzuliriko testuaren argitalpenen arteko denbora-tartea ere kontuan izan beharko da, eta igarotako denborak testuan nola eragin duen ikusi. Bigarren testua jatorrizkoa baino askoz ere geroago argitaratuz gero, ulertzekoa izango da autoreek nahiago izatea azkena argitaraturikoa hartzea iturri-testu gisa, gertuago sentituko baitute. *Bi anai* liburuaren kasuaz dihardu Atxagak ondorengo aipuan. Euskarazko testua 1985ean argitaratu zen, eta gaztelaniarako autoitzulpena 1995ean.

[...] a pesar del parecido, este «Dos hermanos» no sea aquel «Bi anai». En términos vagamente aritméticos, yo diría que «Dos hermanos» es igual a «Bi anai» más-menos once años de la vida de su autor (Atxaga, 1995).

Hamar urteko bizialdian sorkuntza-lanak eta literatur ibilbideak eboluzio nabarmena izan dezakete, eta hori dela-eta autoreak gertuago sentitu dezake azken bertsioa.

Kontuan izateko beste faktore bat itzultzailearen hizkuntza-maila dugu. Inguruko hizkuntzekiko ezberdina dugu euskara, hizkuntza ez-indoeuroparra izaki, eta, ondorioz, uste orokorra dugu ikasteko hizkuntza zaila dela. Helduaroan euskara bigarren, hirugarren edo laugarren atzerriko hizkuntza gisa ikasi duen itzultzailearen hizkuntza-maila literatur lan bat itzultzeko nahikoa izango ote den zalantzak bultzatzen dezake idazlea, itzultzailea edo editorea zeharkako itzulpena nahiago izatera. Zenbaitek

nahiago du gaztelania zubi-hizkuntza gisa baliatuta zeharkako itzulpena egingo duen itzultzaile eskarmentuduna, euskaratik zuzenean itzuliko duen itzultzaile amateurra edo ibilbide laburrekoa baino.

Euskarazko testua ala gaztelaniazkoa hautatzeko beste gakoetako bat xede-irakurlearen eta iturri hartuko den hizkuntzako irakurlearen arteko gertutasuna izango da: gertutasun hori izan liteke hizkuntzari loturikoa, baina baita kulturari dagokiona ere. Jatorri bera duten hizkuntzek elkarren antza handiagoa izango dute jatorri ezberdinekoek baino: gaztelania euskara baino askoz ere gertuago dago frantsesetik, galegotik edo italieratik; horregatik, ez da harrizkoa gaztelaniazko testua lehenestea literatur lan bat itzultzeko. Alabaina, iturri- eta xede-kulturen arteko antzekotasuna izan liteke maila identitarioari edo soziolinguistikoki loturikoa. Katalana gaztelaniatik oso gertu dago linguistikoki, baina euskararekin baditu beste hainbat antzekotasun egoera soziopolitikoari loturikoak. Euskara-katalana hizkuntza-konbinazioan aritzen den Hernàndezen ustez, badira hainbat aldaketa ezin direnak egin gaztelaniazko irakurlearentzat, baina bai katalanezkoarentzat (P. J. Hernàndez, aurrez aurreko komunikazioa, 2010eko irailaren 7a).

Jada autoitzuliriko lan bat nola itzuli beharko litzatekeen hausnartuz, beste gakoetako bat da nork erabaki behar duen iturri-testu gisa zein testu erabili. Erabakia autoreek, itzultzaileek edo editoreek hartu dezakete. Testua idazlearena denez, ulertzekoa da hark bertsio bat ala bestea hobestea. Argitalpen-eskubideez argialetxea arduratzen denez, hark ere izango du zer esanik eskubideak eskuratzekoan (testu batenak ala bestearenak). Xede-irakurlea eta -kultura gertutik ezagutzen dituen, itzultzaileak ere izango du iturri aiposenari buruzko iritzirik. Dasilvak ondoko sailkapen hau dakar izan daitezkeen aukerak kontuan izanik. Posible bada, egokiena autoreari haren iritzia galdetzea dela uste du; bestela, itzultzailearen ikuspegia hartu beharko da kontuan:

[...] dependerá del punto de vista del traductor, que podrá hacer una traducción directa del texto primigenio, una traducción directa del texto autotraducido, una traducción del texto primigenio supeditada al texto autotraducido, una traducción del texto autotraducido supeditada al texto primigenio o, en fin, una traducción compilada de ambos textos (Dasilva, 2013, 252. or.).

Ikus daitekeenez, testuetako bakarra ala biak erabil daitezke itzulpen-prozesuan. Ikusi egin behar bakoitzak zein pisu izango duen prozesuan: pareko balioa izango duten ala bata bestea baino pisu handiagoa hartuko ote duen.

Iturri-testua hautatzeko erabakia nork hartu kontu garrantzitsua da. Dasilvaren hitzetan, idazlearen iritzia berebizikoa da, eta itzultzaileek normalean haren iritzia men egiten diote. Bi testuetatik itzultzeko gai diren itzultzaileek gertutik ezagutzen dute xede-irakurlea eta kultura, eta ikuspegi zabala izan ohi dute itzulpen-prozesuak nolako behar duen erabakitzeko, nahiz eta zenbaitetan autorearen edo argialetxearen eskarien menara egon behar izan.

Pau Joan Hernàndezek hainbat lan itzuli ditu euskaratik katalanera. Batzuetan, eskatu diote gaztelaniazko testua hartzeko abiapuntu euskarazkoaren ordez, *Soinujolearen semea* eleberria kasu. Beste zenbaitetan, itzultzaileak berak hautatu behar izan du

iturri-testua. *Zeru horiek* itzultzean, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa alderatu zituen eta ikusi zuen bazela alderik bi testuen artean, eta editoreari galdetu zion zein hartu behar ote zuen abiapuntu itzulpena egiteko. Beste galdera batekin erantzun zion hark: ez al dira bada berdinak? Hernàndezen ustez, ez luke itzultzaileak izan behar halako erabakia hartzen duena (P. J. Hernàndez, aurrez aurreko komunikazioa, 2010eko irailaren 7a). Dena den, Hernàndezek badaki euskaratik gaztelaniarako itzulpenetan testua dezente moldatzen dutela idazleek (Mata, 2011) eta, horregatik, bi testuak aurrean izaten ditu itzulpen-prozesuan:

Per això, quan ha de traduir alguna d'aquestes obres al català, es fixa tant en la versió original en èuscar com en la traducció espanyola, sempre que li ho demani l'autor o bé l'editor. Aquesta manera de treballar –no gaire habitual en la majoria de traduccions– obliga a prendre un seguit de decisions (Mata, 2011).

Itzulpen-prozesuan, hortaz, bi testuak alderatu eta bakoitzetik behar diren zatiak hartuta, bertsio bateratu bat sortzen du. Antzerako bidea jarraitu du Nami Kaneko japonierarako itzultzaileak ere. Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* eleberria itzultzean, ez argitaletxeak, ez autoreak ez zioten zehaztapenik eman Kanekori zein testu hartu abiapuntu gisa:

Eta, argitaletxeak *BNB* itzultzeko eskatu zidanean, neure buruari galdetu nion: baina zer hizkuntzatatik itzuliko dut, gaztelaniatik ala euskaratik? Niretzat, argi zegoen euskaratik itzultzea zela desiragarriena, baina artean ez nengoen erabat ziur nire euskararen mailaz; eta, gainera, banekien gaztelaniatik itzultzea ere zilegi zela, ez Sari Nazionalaren irabazlea zelako, baizik eta jatorrizkoaren eta gaztelaniazko bertsioaren artean nahiko alde nabarmena zegoelako (gaztelaniazkoa ez da autoitzulpena, baina idazleak berak errebisatua da, eta zati asko moldatuta daude). Buelta batzuk eman eta gero, azkenean, euskaratik itzultzea erabaki nuen; hori bai, gaztelaniazkoa ere kontuan hartuta (Manterola, 2016, 13. or.).

Behin testuak begiratuta, biak baliatzea erabaki zuen: euskarazkoa testu nagusi gisa eta gaztelaniazkoa itzulpenerako lagungarri gisa. Alabaina, prozesua uste baino gehiago konplikatu zen, hirugarren iturri-testu bat azaldu baitzen:

[...] gaztelaniazko bertsioan, nobelaren bigarren erdia oso aldatuta zegoen, eta ez nekien bi hizkuntzetako zein hartu iturburu gisa. Orduan, Uribek liburuaren bigarren erdiaren beste bertsio bat bidali zidan: euskarazkoa, baina gaztelaniaz egindako zuzenketak eta aldaketak kontuan hartzen zituena. «Vulgata» deitzen zion, eta esan zidan Elizabeth Macklin ingeleserako itzultzailearentzat egindako bertsio berezia zela, euskaratik itzuli nahi baitzuen itzultzaile estatubatuarrek (Manterola, 2016, 14. or.).

Hirugarren testu hori, euskarazko testu moldatua, hartu zuen iturri nagusi gisa itzultzaileak nobelaren erditik aurrera. Baina, ondo begiratuta, ikusi zuen gaztelaniaz-

koarekin alderatuta bazituela ezberdintasunak. Hortaz, hiru bertsioetako zati gogoan-garrienak kontuan hartuta berrosatu zituen hainbat pasarte (Manterola, 2016, 14. or.). Argitaragabeko bertsioa itzulpeneko sortu zuen Uribek, zuzeneko itzulpena egin zezan ingeleserako itzultzaileak⁶, itxura batera, gaztelaniazko testuan eginiko moldaketak bil-tzen dituen euskarazko bertsioa zen; praktikan, baina, hiru bertsioak ezberdinak dira⁷.

Kanekok erabaki zuen hiru bertsioak kontuan izatea japonierazko irakurlearentzat aproposa izango zen itzulpena sortzeko. Hasierako testua moldatu egin da, ez euska-ratik gaztelaniarako bihurtetan soilik, baita ingeleserako itzulpena egiteko sorturiko euskarazko bertsio eguneratuan ere. Euskara eta gaztelania oso ondo menderatzen ditu itzultzaileak, eta ez du jaso eskaera zehatzik ez argialetxearen, ez idazlearen aldetik iturri-testu konkreturik erabiltzeko. Berak hausnartu behar izan du, hortaz, zein den aukerarik aproposena.

Bada hautu hori itzultzailearen esku ez dagoela uste duenik, testuaren jatorrizko-tasuna ezbaian jartzetik onartzen ez dutenak esaterako. Dena den, Kanekori iruditzen zaio itzultzaileak baduela eskumenik erabaki hori hartzeko:

Baina nik uste –eta duela gutxi hemengo [Japoniako] beste itzultzaile batzuei ere en-tzun diet iritzi bera– hori zilegi dela. Topikoa da itzulpenean beti galtzen dela, itzul-tzaileak ezin duela jatorrizkoan esaten den guztia beste hizkuntza batean transmititu. Baina, azken finean, idazleak berak ere adierazi ote du bere buruan daukan guztia jatorrizko lanean? Ez. Orduan, itzultzaileak, egilearen asmoa ongi ulertuz gero, pixka bat bideratu ahal izango du jatorrizko testua, xede hizkuntzan ongi funtziona dezan. Eta hori ez da jatorrizkoarekiko traizioa. Obraren potentzia zabaltzen du [...]. Or-duan, itzultzailearen lana xede hizkuntzan ahalik eta bertsiorik onena lortzea izan-go da, esku artean dauzkan ahalbide guztiak baliatuz. Eta uste dut ahal nuen guztia egin nuela nobela hori japonieraz jartzen; hori bai, momentu hartan ahal nuen guztia (Manterola, 2016, 14. or.).

Testua bizia da eta hartzaile bakoitzari egokiena zaiona eskaintzea haren mesede-tan izango da. Horretarako, itzultzaileak eskura dituen ahalbide guztiak erabiltzen ditu, eta gaztelaniazko bertsioa baliabide bat gehiago da itzulpen-prozesuan, beste hainbat tresnarekin batera (hiztegiak, corpusak, eta abarrak). Hori hala izanik ere, ikusi behar da zein neurritan erabiltzen den bertsio bakoitza itzulpen-prozesuan eta zer inplikazio dituen testu bat ala bestea erabiltzeak. Hau da, (auto)itzulpena erabiltzen den iturri nagusi gisa, baliabide lagungarri gisa ala jatorrizkoaren maila berean. Itzultzaileei nekeza suerta dakieke lehentasunak ezartzea eta *Bilbao-New York-Bilbao*ren pareko kasu konplexuek testuen alderaketa sakona eskatuko dute. Ez litzateke harrizkoa itzultzaileek bi testu erabiltzeari uko egitea, prozesuak emaitzan izan dezakeen eragina negatiboa delakoan.

⁶ Vulgata deituriko bertsio hori ez da argitaratu euskaraz. Izan ere, geroago egin diren *Bilbao-New York-Bilbao* liburuaren berrargitalpenetan euskarazko jatorrizko bertsioa berrargitaratu izan da.

⁷ Ik. Kirmen Uribek UPV/EHUko Letren Fakultatean emaniko hitzaldia xehetasun gehiagorako (Uribe, 2016).

Bi faktore nagusik bultzatuko dute jatorrizko konpilatua erabiltzea: batetik, gaztelaniazko itzulpenean txertatu diren moldaketek, eta, bestetik, itzultzaileen hizkuntza-gaitasunak, hau da, haien euskara- edo gaztelania-mailak. Gaztelania nagusi den eremuan sortzen direnez euskal lanak batez ere, euskaratik hainbat erdaratara itzultzeko gai diren itzultzaileei zaila izango zaie beren gaztelaniazko komunikazio-gaitasunetik urruntzea, bai maila linguistikoan, baina baita maila kulturean ere. *Itzultzaile berriak* egitasmoaren amaierako itzulpen-mintegian zenbait poesia eta narratibazko lagin itzuli zituen parte-hartzaile bakoitzak bere hizkuntzara. Haien euskara-maila oso apala zen une hartan, hortaz, gaztelaniazko testuak izan zituzten iturri nagusi, eta euskarazko testuak osagarri. Denbora eta ahalegin gehiagorekin, iritsiko da momenturen bat non euskarazko eta gaztelaniazko testuak maila paretsuan erabiltzeko edo euskarazko testua iturri nagusi gisa baliatzeko gai izango diren. Gaztelaniaren ezagutza-maila handiak, baina, nolabaiteko interferentzia eragingo du haien itzulpen-prozesuetan. Kanekok badauki hirugarren hizkuntzetarako itzultzaileek gaztelaniazko testura jotzeko tentazioa izango dutela, horregatik da garrantzitsua euskarazkoari balioa eman eta iturri-testuari buruzko gogoeta egitea:

Horrexegatik da hain garrantzitsua itzultzaileak berak ongi hausnartzea zergatik itzultzen duen euskaratik eta ez gaztelaniatik. Eta, gaztelaniazko testua modu batean edo bestean erabiltzea erabakitzen duenean ere, uste dut itzultzaileak ez duela ahaztu behar bertsio hori ez dela iturburua, euskarri baizik, eta jatorrizkoa euskarazkoa dela beti (Manterola, 2016, 25. or.).

Kanekoren iritziz bada beste arrisku bat ere: «literatur lan bat euskaratik itzultzea edo itzuli izana zerbait sinbolikoa bihurtzea» (Manterola, 2016, 25. or.). Literatur lan bat euskaratik itzuli dela, eta ez gaztelaniatik, itzulpenaren emaitzan eta harreran nabaritu beharko litzateke, eta ez luke elementu sinboliko soil izan behar. Horrek iturri-testuaren azterketa sakona eskatuko dio itzultzaileari.

Horrez gain, iturri-testuen estatusari ere erreparatu beharko genioke. Aldea egongo da erabiltzen den iturri-testua jatorrizkoa izan (hizkuntza gutxituan sortua) ala zubi-bertsioa (hizkuntza hegemonikora itzulia), erabiltzen dena erabiltzen dela ere estatusa eta ikusgarritasuna lortuko baititu iturri-bertsioak. Alegia, itzulpenarako erabiliko den testua kanonizatuko da. Ondorengo aipuak bigarren bertsioak hartzen duen garrantzia nabarmentzen du:

In all these cases, and in many more, the self-translated text has ended up superseding the original, which stays 'isolated' in its first language as in a sort of greenhouse, its diffusion in other languages and cultures taking place only through the text translated by its author into a second tongue (Santoyo, 2013, 36. or.).

Bestalde, bi testuak iturri gisa baliatzea ere posible da, lan honetan ikusi dugun moduan. Itzultzaileek kontuan izan beharko lituzkete lege-auziak iturri-testu konpilatuekin lan egitean. Izan ere, argialetxe batek iturri-testuaren eskubideak erosten ditu

testu bat itzultzeko. Testu bakarraren eskubideak izan ohi dira, hortaz, arazorik ez da sortuko kontsulta bakanak egiteko erabiltzen bada beste testua, baina erabilera parekoa emanez gero, sor liteke gatazkaren bat.

Aldi berean bi iturri-testu erabiltzeko moduak ezberdinak izan daitezke, Dasilvaren sailkapenak erakutsi duenez; hala, erabiltzen dugun terminologiak erakusten du ikuspegi tradizionala hertsiegia dela kasu horiek izendatzeko. Nolanahi ere, *jatorrizko testu* esatea baino egokiagoa izango da *iturri-testu* esatea.

Amaitzeko, itzulpena aitortzeko moduari erreparatuko diogu. Hizkuntza gutxietatik egiten diren itzulpenen kasuan, ohikoa da (auto)itzuliriko lanek iturri-testuari buruzko informazioa ezkutatzea (ik. informazio gehiagorako Dasilva, 2013; Manterola, 2014). Zenbait zeharkako itzulpenek pentsarazten dute jatorrizkotik itzuliak izan direla, *Soinujolearen semea* liburuaren katalanerako eta galizierako itzulpenak kasu: «In these translations, Atxaga's Spanish version is used as the source but nevertheless rendered invisible to the reader» (Santana, 2009, 221-222. or.)⁸. Autoreak gaztelaniazko testua har zedin nahi izan zuen hirugarren hizkuntzetako itzulpenetarako iturri gisa, baina paratestuetan datu hori ezkutatu egin da. Gaztelaniarekiko mendekotasuna ezkutatzeko nahia ikus liteke, literatura txikien arteko trukea errealitatean dena baino indartsuago erakusteko ahaleaginean.

4. Hondar hitzak

Literatura diglosiko bateko itzulpen-trukeak literatura elebakarren ikuspegitik haratago doaz, eta botere-harremanak ezinbestean egingo dira ageriko. Gaztelania ez gainerako hizkuntzetarako itzulpena aztertzean ikus liteke oso gutxitan topatuko dugula bi literaturaren arteko aurrez aurreko harreman soila, hizkuntza hegemonikoak, modu esplizituan ez bada zeharka ere, itzal egingo baitu itzulpen-prozesuan.

Euskaratik erdaretarako itzulpenak aztertzean, ezinbestean agertuko da gaztelaniarako itzulpena bidean, gehien-gehienetan beste erdaretara itzuliko diren lanak aurretik gaztelaniara (auto)itzuliak izan baitira. Hortaz, itzulpena egiteko bideari erreparatzean begiratu beharko da zer hizkuntzarako testua hartu den abiapuntu, itzultzaileak euskara eta gaztelania bi-biak dakizkien kasuetan. Hausnartu beharko da nork duen itzulpena zein bertsioetatik egin erabakitzeo eskumena, eta itzultzaileek nola jarduten duten praktikan. Aukeratzan den testua aukeratzan dela ere, ikusgarritasun handiagoa izango du erabiltzen denak, eta besteak baino estatus handiagoa lortuko du.

Zuzeneko itzulpenaren aldeko jarrera zabaltzen ari delarik, garrantzitsua da itzultzaileen jardunari xeheki begiratzea eta haiek eginiko itzulpenei erreparatzea, bai kanporako bideari buruzko hausnarketan sakontzeko, bai etorkizuneko itzulpenetarako bidea markatzeko.

⁸ Manterolak (2014, 2019) erakutsi moduan, katalanezkoak euskarazko testua ere erreferentzia gisa erabili izanaren zantzuak badaude testuan.

Erreferentziak

- ACE. (d. g.). *Associazione Culturale Euskara*. <https://www.euskara.it/traduzioni-itzulpenak/helbidetik/eskuratua>.
- Arrula-Ruiz, G. (2018). *Autoitzulpenaren teoria eta praktika Euskal Herrian* (doktoresia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz. <https://addi.ehu.es/handle/10810/27983> helbidetik eskuratua.
- Atxaga, B. (1995). *Dos hermanos*. Madril: Ollero y Ramos.
- Atxaga, B. (2017). *Xola in teta iz Amerike* (Itzulpena: Barbara Pregelj). Medvode: Malinc. (2017an eslovenieraz argitaratua).
- Cid Abasolo, K. (2015). Autotraducción literaria desde el vasco. *Revista de Filología Románica, Anejo IX*, 177-192.
- Dasilva, X. M. (2013). Retraducir el texto autotraducido. El curioso caso de *Xente de aquí e de acolá*, de Álvaro Cunqueiro. In Ch. Lagarde & H. Tanqueiro (arg.), *L'autotraduction aux frontières de la langue et de la culture* (251-259. or.). Limoges: Lambert-Lucas.
- EHAA. (2019). *Ebazpena, 2019ko apirilaren 10ekoa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2019an literatura-itzulpenetarako dirulaguntzak emateko modua arautzen duen deialdia, Zuzendaritza Kontseiluak onartutakoa*. https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/literatura_itzulpenak/helbidetik/eskuratua.
- EIZIE. (2019). *Itzulpen-lehiaketa 2019*. https://eizie.eus/eu/argitalpenak/literatura_unibertsala/lehiaketa2019 helbidetik eskuratua.
- EIZIE. (d. g. a). NorDaNor [datu-basea]. <http://nordanor.eus/> helbidetik eskuratua.
- EIZIE. (d. g. b). *Itzultzaile berriak*. https://eizie.eus/eu/jarduerak/itzultzaile_berriak helbidetik eskuratua.
- Etxepare Euskal Institutua. (2019). *Etxepare Laboral Kutxa itzulpen saria 2019*. https://www.etxepare.eus/media/uploads/archivo/Etxepare-Laboral_sariko_deialdia_2019_eus.pdf helbidetik eskuratua.
- Manterola, E. (2014). *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa*. Bilbo: UPV/EHU.
- Manterola, E. (2016). Nami Kanekori elkarrizketa. *Senez, 47*, 1-30. http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20161103/03manterola/senez47_manterola_kaneko_oso.pdf helbidetik eskuratua.
- Manterola, E. (2018). Self-translation from a diglossic perspective. The reality of the Basque Country. *Testo e Senso, 19*. <http://testoesenso.it/> helbidetik eskuratua.
- Manterola, E. (2019). Estudio sobre el heterolingüismo en la obra de Bernardo Atxaga. *eHumanista/IVITRA, 15*, 281-298.
- Manterola, E. (d. g.). Euskal Literatura Itzuliaren Katalogoa (ELI) [datu-basea]. <https://www.ehu.es/ehg/eli/> helbidetik eskuratua.

- Mata, A. de (2011). Pau Joan Hernández, L'espai del traductor. *Visat*, 11. <http://www.visat.cat/espai-traductors/cat/traductor/231/pau-joan-hernandez.html> helbidetik eskuratua.
- Olaziregi, M. J. (2019). *Euskal literaturaren lekuak nazioartean. Idazkien eta hizkuntzen arteko itzulpena: eskuizkribuak, inprimakiak, literatura-artxiboak*. Euskaltzaindiaren nazioarteko literatura kongresua, Bilbo. <https://www.youtube.com/watch?v=pnXGZjFATY8> helbidetik eskuratua.
- Santana, M. (2009). On visible and invisible languages: Bernardo Atxaga's *Soinujolearen semea* in translation. In M. J. Olaziregi (arg.), *Writers in between languages: minority literatures in the global scene* (213-229. or.). Reno: University of Nevada Press.
- Santoyo, J. C. (2013). On mirrors, dynamics and self-translations. In A. Cordingley (arg.), *Self-translation: brokering originality in hybrid culture* (27-38. or.). Londres: Bloomsbury.
- Uribe, K. (2016, maiatza). *La traducción necesaria. El ojo de Polisemo VIII* ekitaldian eginiko hitzaldia, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz. <https://ehutb.ehu.es/es/video/index/uuid/5733343fe5f0a.html> helbidetik eskuratua.
- Urretabizkaia, A. (2018a). *Червената тетрадка ; Защо пампушко?* (Itzulpena: Maria Pachkova). Sofia: Panorama. (2018an bulgarieraz argitaratua).
- Urretabizkaia, A. (2018b). *Rdeči zvezek* (Itzulpena: Barbara Pregelj). Medvode: Malinc. (2018an eslovenieraz argitaratua).
- Zirimiri press. (d. g. b). *Itzultzaile berriak*. <https://www.zirimiripress.com/> helbidetik eskuratua.

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasunaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza:
berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation:
the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen
ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketetz
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen
erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun:
egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian:
bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613